

## **ESKAERA-ORRIA BETETZEKO ARGIBIDEAK**

### **ESKAERA-ORRIAREN 1. ETA 2. ATALAK:**

1 eta 2 puntuek bizikidetzaren unitatea osatzen duten edo osatuko duten pertsonen datuen berri ematen digute.

- A) Eskatzaileak ezinbestean bete behar du erroldatze-baldintza:
- A laukia: azken 5 urteetan, gutxienez, hirian erroldatuta egotea.
  - B laukia: azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon izana. Izan ere, ez da beharrezkoa eskaera- egunean Irungo Biztanleen Udal Erroldan inskribatua egotea.
- B) Titular guztiak adinez nagusiak izan behar dira eta kontuan hartuko dira beren diru-sarrerak.
- C) Inola ere ezingo da etxebizitzaren titularra izan bizikidetzaren unitatekoa ez den pertsonarik.
- D) Pertsona bat bera ezingo da bi eskaeratan erregistratua egon.
- E) Erregistroan senar-emazte bezala edo izatezko bikote bezala erregistratutako pertsonen titulartasuna partekatu beharko dute babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratuz gero. Etxebizitza eskuratzeko bidea erosketa izan bada, bien partaidetza-ehunekoak berbera izan beharko du, nolaz eta inskribatutako senar-emazteek edo izatezko bikoteak ondasunen banantze-erantzera ez daukaten; kasu horretan, etxebizitzaren titulartasunean bakoitzak duen partaidetza-ehunekoak desberdina izan daiteke.
- F) Babes publikoko etxebizitza erosketa bidez eskuratu duten bizikidetzaren unitateko adin nagusiko gainerako kide guztiak izango dira etxebizitzaren titularrak, eta partaidetza berbera izango dute, zuzeneko odolkitetasunez ahaideak direnean izan ezik.
- G) Mugikortasuna gutxitua duten pertsonentzako egokitutako etxebizitza eskuratuz gero, ezinbestean izango dira etxebizitza honen titularrak mugikortasun gutxitu iraunkorra duten minusbaliatuak; eta adingabeak edo ezinduak izanez gero, tutoretza edo guraso-ahala dela medio, haiek beren ardurapean dituzten pertsonak izango dira titularrak.
- H) Babes ofizialaren inguruan indarrean dagoen legeria kontuan hartuta, minusbaliatutzat hartuko dira mugikortasun gutxitu iraunkorra duten pertsonak, baldin eta minusbaliotasun gradua aztertze, deklaratzeko eta mailakatzeko prozedura arautzen duen 1971/1999 Errege Dekretuan, abenduaren 23koan 3. Eranskinean jasotzen dituen minusbaliatuen artetik, eskumena duen organuaren egiaztariaren bidez (Gipuzkoako Foru Aldundiaren egiaztaria), honelako egoeraren batean daudela egiaztatzen dutenak baldin badira:
- Gorpil-aulkian daudenak (A).
  - Derrigorrez, ibiltzeko bi makulu behar dituztenak (B).
  - D) eta H) atalei dagokienez 7 puntu edo gehiago batzen dituztenak.
- I) Adimen desgaituen kasuan, horrela joko dira minusbaliotasun maila aitortzeko, adierazteko eta sailkatzeko prozedura arautzen duen abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 1.A eranskinaren 15. eta 16. kapituluetan xedatutakoaren arabera hala aitortzen direnak.

### **ESKAERA-ORRIAREN 3. ATALA:**

Ikus betekizunen orria (Diru-sarrerak).

Zuk edo bizikidetzatza unitateko kideren batek gaur egun etxebizitza baten jabetza, azalera eskubidea, gozamina, jabetza soiliko eskubidea, badu etxebizitza premiaduntzat hartuko da baldin eta egoera hauetakoren batean badago:

- A) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza, gutxienez bost urte lehenago erositako, etxebizitza ohikoa eta iraunkorra dena, eta 317/2002 Dekretuan ezarritako bizigarritasun baldintza minimoak betetzen ez dituen (*egiaztagiri tekniko eta titulartasuna egiaztatzen duen eskritura*).
- B) Banaketa edo dibortzio prozeduraren ondoren edota izatezko bikoteak bikote izateari utziz gero:
- Etxebizitza ezkontideari esleitua dago (*hitzarmen arautzailearen eta epai irmoaren fotokopia*).
  - Prozedura horren ondorioz etxebizitza besterenduz gero, ezkontide bakoitzeko, oraindik ordaintzeko dauden hipoteka-kargen zenbatekoa deskontatuta, gehienez 75.000€ lortu badira (*etxebizitzaren besterentzearen eskrituraren kopia*).
- C) 70 urteko edo gehiagoko pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza baten titular direnak, baldin eta etxebizitza horrek aplika daitekeen araudiaren arabera irisgarritasun baldintzarik betetzen ez badu. (*egiaztagiri tekniko eta titulartasuna egiaztatzen duen eskritura*).
- D) Bizikidetzatza unitate bateko kideren bat Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza baten titular denean, baldin eta etxebizitza horren azalera osoa pertsona bakoitzeko 15m<sup>2</sup> erabilgarrien ratioaren azpitik badago (*etxebizitzaren jabetza-eskritura, zeinetan azalera erabilgarriaren zenbatekoa azaltzeaz gain, kide guztiak urtebeteko epean gutxienez helbide berean erroldatuta daudela agertzen baita*).
- E) Herentziaz edo dohaintzaz etxebizitza baten edo batzuen kotitularra da, betiere baldintza hauek beteta:
- Kotitularitasunaren portzentajeek ez dute inola ere gaitutako %50.
  - Etxebizitzan dituen partizipazioen balioa edo, transmisiorik izan bada, horretatik jasotako zenbatekoa ez da 75.000€tik gorakoa izango, oraindik ordaintzeko dauden hipoteka-kargen zenbatekoa deskontatu ondoren.
- (*Oinordetzaren kasuan: oinordetza onestea eta oinordetza banatzeko eskritura; dohaintzaren kasuan: dohaintzaren eskritura. Bi kasu horietan, partizipazioa salduz gero: besterentze eskritura*).
- F) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza izatea, hiri-inguruen, gune publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun-baldintzen inguruko arau teknikoak onartzeko den apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan irisgarritasunari eta igogailuei buruz jasotzen dituen xedapenak betetzen ez dituen eraikin batean kokatua badago eta eskaera-orri honetan azaltzen diren eskatzaileetako batek edo bere seme-alabaren batek mugikortasun gutxitu iraunkorra badu (*egiaztagiri tekniko*).
- G) Etxebizitza baten titularra, baina jabetza soilarena bakarrik, bazara alokairu-erregimenean soilik izango du eskuratzeko aukera.

**SAU - IRUNVI Irungo Etxebizitzaren Elkarte Publikoak sustapen bakoitzean ezarriko ditu eska daitezkeen baldintza ekonomikoak**

**ESKAERA HONEK EZ DITU SALBUESTEN ESKATZAILEAK SUSTAPEN BAKOITZERAKO EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEN DITUZTELA EGIAZTATZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA EGUNERATUTA AURKEZTETIK. ETXEBIZITZEN ESLEIPENAK EGIAZTATZE HORREN PEAN EGONGO DIRA BALDINTZATUTA.**